

APORLÒC

Akitania eskualdeko kontseiluaren kidea, eskualdeen hizkuntza eta kulturen arduradun jauna,

DRAC Akitaniaren zuzendari jauna eta DGLFLF erakundearen ordezkari jauna,

Eskualde elkartuen ordezkari jaunak,

Kultura eta komunikazioaren ministerioaren ordezkari jauna,

Congres Permanent de la Lenga Occitana delakoaren buruorde jauna,

Congres Permanent de la Lenga Occitana delakoaren batzorde iraunkorraren burua,

Hasteko, arratsalde on guztioi eta bihoa nire lehen agurra APORLÒC —Associacion de Prefiguracion de l'Organisme de Regulacion de la Lenga d'Oc— elkartearantz, hain zuzen ere, gaurko gonbitea eskertzeko eta orobat, elkarre hori sortuko duten erakunde eta organizazioena ere, horiek bideratu baitute Euskaltzaindia-*Académie de la langue basque*-k egun gertaera honetan parte hartu eta zuen aurrean azalpenak ematea.

Lehendabizikoz, nirekin ekitaldi honetan dagoen Euskaltzaindiaren taldea aurkeztu nahi dizuet. Bertan ditugu Aurelia Arkotxa anderea, Euskaltzaindia-*Académie de la langue basque*-ren buruordea eta Bordeleko Unibertsitatearen irakaslea eta Battittu Coyos jauna, euskaltzain osoa eta akademiaren barruan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoetan partaidea.

Aurrekoak dira, nirekin eta beste euskaltzain oso guztiekin, parte-hartzaile sutsuak, Euskaltzaindiak egiten dituen ahaleginetan, hain juxtu ere, euskara euskal gizartearen barnean nortasun linguistikoaren osagai esanguratsua izan dadin. Uka ezina da euskal gizarteak gero eta estekadura indartsuagoak dituela Akitania eskualdearekin. Begien bistakoa da, bestalde, oraintsu eratu den euroeskualdeak mugaren bi aldetan egin den urteetako lana bildu duela eta, zer esanik ez, horren barnean euskara ere badela.

Mugaz gaindiko lan hori azpimarratu nahi dut, lan hori Euskaltzaindiak egin duelako bere sorreratik bertatik, 1918-1919 urteetatik, besteak beste, bertan parte hartu dutela mugaren bi aldetako euskaltzain osoek, guztion artean aurrera ateratzeko euskararen normatibizazioa eta normalizazioa.

Mugaz gaindiko eginkizun hori osatu behar da Euskaltzaindiak duen beste ezaugarri batekin, alegia, Euskaltzaindia aitortua izan dela botere publikoen aldetik euskararen gaietan, erakunde aholku emaile ofizial gisa. Halakoa aitortzen zaio Espainiako Erresuman 1976 urteko dekretu baten bidez, gerora garatu dena Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroko Foru Komunitatearen legerian. Frantziako Errepublikaren kasuan, Euskaltzaindiak badu elkarte aitortu baten estatusa eta gainera, Euskaren Erakunde Publikoarekin halako hitzarmena, urtez urte, emaitza berriak ekartzen dituen. Esan gabe doa, horiek direla urrats garrantzitsuak euskararen ofizialtasun osoa lortzeko bidean.

Euskaltzaindiak bide luzea egin du bere historian eta zereginetan eta bide horretan beti aintzakotzat hartu ditu bi alor bereziak, beste akademietatik desberdintzen dutenak. Horiexek

dira *Iker* eta *Jagon* sailak. Lehenak xedeak ditu euskararen normatibizazioa eta estandarizazioa dela gramatikan, dela hiztegian edo onomastikan. Bigarrenak, aldiz, euskararen erabilera soziala aitzinatzea du helburu.

Bi-biak, zalantzarik gabe, elkarren osagarriak dira eta ezinbestekoak euskararen moduko hizkuntza baten akademian. Izan ere, euskara bera gutxiengotua eta gutxietsia dagoen neurrian, behar-beharrezkoa du saio gogotsua, nahiz corpusa garatzeko, nahiz estatusa hobetzeko.

Horrexegatik da gaur oso aberasgarria Euskaltzaindiarentzat gonbite hau jasotzea, horrek bidea ematen diolako bere ibilbidearen irakaspenak partekatzeko zuekin, auzoko hizkuntzaren eragileekin, aspaldiko loturak baititugu gure artean.

Ezaguna da okzitaniera eta euskara batera izan direla historian zehar, esparru geografikoaren eta gizartearen barruan. Hori gertatu da mugaren bi aldetan eta horren lekukoak dira, beste askoren artean, Nafarroa Erresumaren testu juridikoak, erdi aroan bertan ondu zirenak edota Zuberoaren ohitura, okzitanieraz idatzia eta bertako testu juridikorik gorena.

Halako adibideek, alabaina, ez digute euskaldunei ahantzarazi, okzitaniar populazioak bizi izan direla, duela ehun urte arte, euskararen lurraldeetan eta populazio horiek utzi dutela ildo nabarmena deituretan zein toponimian.

Laurogeita hamar urte bete dituen akademiak agurtu eta zoriondu egiten ditu, hortaz, egun bide berri bat hastera doazenak, bide horrek eramango dituela okzitaniera arautzeko erakunde batera. Erakunde berri horrek hainbat eginkizun izango ditu, Euskaltzaindiak euskararen alorrean dituen eite berekoak.

Agurtzeko aukera hori baliatu nahi du Euskaltzaindiak, berebat, elkarte berriari bostekoa luzatu eta behar dituen gai guztietan bere laguntza eta aholkua eskaintzeko. Hala egin zuen, egin ere, Bilbon hartu zituenean okzitaniera arautzeko erakundearen sustatzaileak.

Hitz batez esateko, horixe da gaur jendaurrean plazaratu nahi dudana mezua, Euskaltzaindiaren izenean eta elkarte honen sustatzaileentzat: elkarrekiko lan leial eta eragingarria, eta partaidetza zehatza erakunde publikoekin, ikerkuntza erakundeekin eta unibertsitateekin. Helmuga argi dago: egitasmo batzuen bidez, gure bi hizkuntzen eta euren gizartearen mesederako jardutea eta aldi berean gu batzen gaituzten loturak areagotzea eta Europari begira aritzea, horixe baita gure etorkizuna.

Amaitzeko, aipamen txikia, nik neronek egingo dizuedana. *La Setmana*, Bernat Manciet eta Max Roqueta nire bibliotekan aspaldi daude eta sarri irakurtzen ditut. Beste horrenbeste musikari dagokionez; alor horretako *Nadau* taldea, prediku hau bukatzeko aukera ematen didana. Hona, bada, *l'Immortela* testua, euskaldunok eta okzitaniarrok Pirinioetan bat egiten gaituen lorearena:

*Haut, Peiròt, vam caminar, vam caminar, de cap tà l'immortèla
Haut, Peiròt, vam caminar, vam caminar, lo país vam cercar!*

Bilatu dezagun, bada, lekuri duinena gure hizkuntzentzat!

Andres Urrutia
euskaltzainburua